OEEren 25. Osasun Biltzarra
osasunakirola.eus
Gasteizko EHUko Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzietako Fakulta (IVEF)
2015eko apirilaren 17-18
Behin-behineko egitaraua

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias de la Actividad Física y del Deporte

Ibileraren abiadura maximoa: Adineko pertsonen egoera fisiko funtzionalaren iragarpena epe luzeko zaharren egoitzetan

H. Arrieta[1], U. Elordi[2], M. Ugartemendia[2], F. Ruiz[1], N. Zinkunegi[2], N. Mendiluce[3], Mirian A. Garrués[1]

[1] Fisiologia Saila, Medikuntza eta Odontologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea. Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia) (✉ haritz.arrieta@ehu.eus)
[2] Erizaintza Saila II, Erizaintza Unibertsitate Eskola, Euskal Herriko Unibertsitatea. Jose Begiristain medikuaren pasealekua 105, 20014 Donostia (Gipuzkoa)
[3] Zorroaga Fundazioa, Alto Zorroaga-Zorroagagaina Kalea, 1, 20014 Donostia (Gipuzkoa)

SARRERA

Ibileraren abiadura beheko gorputz-adarren funtzionamendua zehazteko erabiltzen den metodo objektiboa da (2). Proba fidagarria da testuinguru kliniko, "burden" gaixotasun zein narriadura kognitiboetarako (2,4-6). Instituzionalizatzea (erizaintza eta zaharren egoitzetan) beherakada funtzional handiari lotuta dago. Ikerketa honetan 6 metrotan lortutako ibileraren abiadura maximoa (IAM) eta independentzia funtzionalaren arteko lotura aztertu da epe luzeko zaharren egoitzetan.

HELBURUAK

1.- Egoera fisiko funtzionalaren parametroetan instituzionalizazioak duen eragina ikertzea.

2.- Ibileraren abiaduraren eragina aztertzea independentzia funtzionala iragartzeko.

MATERIALA ETA METODOAK

107 adineko pertsonen ibileraren abiadura maximoa (IAM) aztertu zen, kronometro bati konektatuta zeuden bi zelula fotoboltaikoren bitartez (6 metroko distantzian), 2 metro utzirik azeleratzeko eta beste 2 metro abiadura txikiagotzeko. Azken bi urte eta erdian izandako egoera fisiko funtzionala ikertu zen honako test hauek erabiliz: a) 20 metro ibiltzeko independentzia (1). b) 6 minututan zehar ibili ahal duen distantzia (7) d) Short Physical Performance Battery (SPPB) test sorta (3). Independentzia puntuazio sisteman puntu 1 esleitu zitzaien 20 metro ibiltzeko inongo laguntzarik behar izan ez zutenei (A)(1), 6 minututan zehar ibili behar den testean gutxienez 300 metro egin zituztenei (B)(7), edo gutxienez SPPB test sortako esparru batean puntuatu zutenei (oreka, 4 metroko ibilketa eta aulkitik zutitzeko proba) (D)(3). Erregresio binomial logistikoa erabili zen independentzia funtzionala baloratzeko, irizpide ezberdinak jarraituz (A,B,D), ibileraren abiadura maximoarekin lotuz, altuerarekin normalizatuz (IAM/altuera) eta sozio-demografia eta osasuna aldagaiak kontrolatuz.

1.Taula: Pazienteen ezaugarriak.

	2011 ekaina			
	n	**mean**	**SD**	**P value**
Adina (urteak)	86	80,260	9,666	
GMI (kg/m^2)	86	28,139	5,052	
	2013 abendua			
	n	**mean**	**SD**	
Adina (urteak)	86	82,873	9,654	0,000
GMI (kg/m^2)	86	25,341	5,626	0,000

Oharra: Gorputz-masaren indizea (GMI).

2. Taula: 20 metro laguntzarik gabe ibiltzeko gaitasunaren taula

		A1 Eredua			A2 Eredua		
		Coeff (β)	***p* value**	**Marginal effects dy/dx**	**Coeff (β)**	***p* value**	**Marginal effects dy/dx**
IAM/altuera	(m·sg^{-1}/m)	4,456	0,000	0,830	2,326	0,126	0,416
Sozio-demografia							
Generoa	(0-1)				1,103	0,165	0,197
Hezkuntza maila	(0-5)				-0,362	0,328	-0,065
Egoera zibila	(0-3)				0,089	0,839	0,016
Osasuna							
Barthel indizea	(0-100)				0,041	0,111	0,007
Ibiltzeko aparatua	(0-3)				-0,214	0,449	-0,038
GMI	(kg/m^2)				0,037	0,574	0,007
Erorketak	(zenbaketa)				-0,075	0,599	-0,013
Denbora instituzionalizatuta	(urteak)				0,006	0,786	0,001
Constant (α)		-3,430	0,000		-6,471	0,046	
Pseudo R^2		0,159			0,172		
Iragarpen probabilitatea		0,339			0,339		
Zuzen iragarritako balioen ehunekoa		75,270			75,810		

Oharra: Hezkuntza maila 0 tik = hezkuntza maila eza, 5 era = Unibertsitate ikasketak; Egoera zibila 0 = ezkondua, 1 = alarguna, 2 = ezkongabea, 3 = dibortziatua.

Oharra: Ibileraren abiadura maximoa (IAM); Gorputz-masaren indizea (GMI).

EMAITZAK

1.Taulan pazienteen ezaugarriak ikus daitezke.

2.Taulan pazienteen independentzia funtzionalean lortutako emaitzak ikus daitezke, aldagai askeak IAM/altuera (A1) eta kontrolatutako aldagaiak (A2) izanik. IAM/altuera aldagai adierazgarria da menpekotasun funtzionala iragartzeko, pazientea gai ez denean (A) 20 metro laguntzarik gabe ibiltzeko (p=0.018; 36.901%), (B) 6 minututan gutxienez 300 metro ibiltzeko (p=0.011; 46.654%) edo (D) gutxienez SPPB test sortako esparru batean puntuatzeko (p=0.008; 57.711).

ONDORIOAK

Ibileraren abiadura, independentzia funtzionala iragartzeko azkarra, merkea eta fidagarria den aldagaia da adineko pertsonen osasunari lotutako emaitzak iragartzeko.

BIBLIOGRAFIA
1. Bohannon RW. Comfortable and maximum walking speed of adults aged 20—79 years: reference values and determinants. Age and Ageing 26: 15-19, 1997.
2. Bohannon RW and Williams Andrews A. Normal walking speed: a descriptive meta-analysis. Physiotherapy 97: 182-189, 2011.
3. Guralnik JM, Simonsick EM, Ferrucci L, Glynn RJ, Berkman LF, Blazer DG, Scherr PA, and Wallace RB. A short physical performance battery assessing lower extremity function: association with self-reported disability and prediction of mortality and nursing home admission. Journal of gerontology 49: M85-M94, 1994.
4. Kuys SS, Peel NM, Klein K, Slater A, and Hubbard RE. Gait Speed in Ambulant Older People in Long Term Care: A Systematic Review and Meta-Analysis. Journal of the American Medical Directors Association, 2013.
5. Muñoz-Mendoza CL, Cabañero-Martínez MJ, Millán-Calenti JC, Cabrero-García J, López-Sánchez R, and Maseda-Rodríguez A. Reliability of 4-m and 6-m walking speed tests in elderly people with cognitive impairment. Archives of Gerontology and Geriatrics 52: e67-e70, 2011.
6. Peel NM, Kuys SS, and Klein K. Gait speed as a measure in geriatric assessment in clinical settings: a systematic review. The Journals of Gerontology Series A: Biological Sciences and Medical Sciences 68: 39-46, 2013.
7. Steffen TM, Hacker TA, and Mollinger L. Age-and gender-related test performance in community-dwelling elderly people: Six-Minute Walk Test, Berg Balance Scale, Timed Up & Go Test, and gait speeds. Physical Therapy 82: 128-137, 2002.

ESKERRAK ETA OHARRAK
Pazienteei, beraien familiako kideei eta Zorroaga Fundazioari eskertu nahi diegu.

DIRU LAGUNTZA
UPV/EHU (UFI11/44), OTRI (EHU11/49) & Eusko Jaurlaritza OTRI (SAI11/105)

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea